

nieve se han publicado hasta la fecha tres ediciones.

Recientemente he terminado mi segunda novela. Narra una historia de reencontro con la vida que nos hace recorrer un valle del Pirineo a principios del siglo XIX.

También he escrito varios relatos cortos entre los que destacaría *La otra noche*, que es un homenaje a varios autores, o *El germen*, ganador del III Concurso de Relatos Cortos contra la Violencia Machista convocado por el Ayuntamiento de Terrassa, y que aborda el origen de la violencia machista entre los adolescentes. Además colaboro habitualmente con las webs literarias *Lecturas sumergidas* y *La boca del libro*.



FOTO: revistaberriozar.com

247

Prat Urzainki, Ernesto

(Berriozar, 1978)

Arnas egiteko hasi nintzen idazten. Bizirauteko. Egoera itogarria gainditze-ko. Ezker independentistaren ilegalizazio garai zen eta, epaile inkisidore baten aginduz, Guardia Zibiliake gure etxea asaltatu zuen nire militantzia politikoa zela eta. Momentu hartatik bertatik torturaren atzaparrak hasi ziren hegan bueltaka nire gainean, putre gosetuen antzera. Luze gabe gainera, terrorista bilatuenean zerrendan sartu ninduten, eta nire argazkiak telebistako albistegi nagusiak ireki zituen. Ihesari lotu nintzaion. Torturatik ihesi, espetxetik ihesi. Ihesi. Orduan hasi nintzen idazten, denborari borroka irabazteko. Burua askatzeko. Xanti Zapirainek idatzi zuen gisan, iheslarien etsairik makurrena, polizia baino gehiago, denbora baita. Orduak bete behar ziren, egunak eta asteak. Urteak. Ihesean zaudelarik itzalen artean baino ez duzu lekurik, iluntasunean,

isiltasunean. Pertsegitua egotean azpimunduan bizi behar duzu. Pertsegitua egotean bizi egin behar duzu. Baldintza haietan ekintza praktikoa bilakatu zen idaztea. Paper puska bat eta boligrafo bat nonahi aurki daitezke eta edozein ideia garapenak egunak eta asteak eskatzen ditu. Idaztea, beraz, ezinbertzeko tresna bilakatu zen denboraren kontrako borrokan.

Free Peltier Little horsen izeneko ipuinarekin lehen saria eskuratu nuen Pyrenaica aldizkariko mendi ipuinen IV. lehiaketan, 2009. urtean. Bertze hamai-ka ipuin, narrazio eta zirriborro idatzi nituen galdutako paper eta kaieretan, elkartasuna hitzaren esanahirik sakonena ezagutzen nuen bizkitartean. Iruñeko udalak antolatutako egile berriendako euskarazko XXIII. literatur lehiaketan hirugarren saria erdietsi nuen 2012an, *Lozen izan nintzen* lanarekin. Bertzetik, ihesean idatzirik eta espetxean zuzendurik, *Hiru ilargi laurden* eleberria argitaratu nuen 2013an, Baztango Metaziri kolektibo-editorialaren eskutik. Azkenik, *Orpoz orpo* eleberri erotikoa argitaratu nuen 2014an, Txalaparta editorialaren Literotura bilduman. Kontakizunean umorea, sexua eta klandestinitatea nahasten dira, Europako hirietan barna gertatzen den *road movie* moduko batean. Eleberriaren lehen atala ihesean idatzi nuen bere osotasunean. Bigarrena Toulouseko espetxean hasi nuen, eta, zorionez, kalean bukatu ahal izan nuen.

Gaur egun irakurtzen eta idazten jarraitzen dut, kapitalismoak oparitzen digun askatasun pozoidunean. "Arnoa esklabuendako" blogean argitaratzen ditut nire idatzi eta pitokeri guztiak eta, (H)ilbeltza kolektiboko kidea izanik, Baztanen urtero ospatzen den Euskal Nobela Beltzaren Astearen antolaketan parte hartzen dut.

248



Pro Uriarte,

Begoña

(Pamplona, 1981)

Calcularon que nacería el día 7 de julio. Sin embargo, me retrasé y no vi la luz hasta el 16. Estudié en un colegio situado lejos del pamplonés barrio de San Jorge donde crecí; en una calle del centro de la ciudad con nombre de batalla: Navas de Tolosa. A los 6 años, el azar me llevó a un pequeño pueblo al otro lado de El